

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

Aita Santuaren Misio Ekintzak

**IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA
KONTA EZAZU**

DOMUND MISIO IGANDEA

Urriak 24 Octubre

2021

**CUENTA
LO QUE HAS VISTO Y OÍDO**

DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN

Obras Misionales Pontificias



**MENSAJE DEL SANTO PADRE FRANCISCO
PARA LA JORNADA MUNDIAL DE LAS MISIONES 2021**
**«No podemos dejar de hablar
de lo que hemos visto y oído» (Hch 4, 20)**

Queridos hermanos y hermanas:

Cuando experimentamos la fuerza del amor de Dios, cuando reconocemos su presencia de Padre en nuestra vida personal y comunitaria, no podemos dejar de anunciar y compartir lo que hemos visto y oído. La relación de Jesús con sus discípulos, su humanidad que se nos revela en el misterio de la encarnación, en su Evangelio y en su Pascua nos hacen ver hasta qué punto Dios ama nuestra humanidad y hace suyos nuestros gozos y sufrimientos, nuestros deseos y nuestras angustias (cf. Conc. Ecum. Vat. II, Const. past. *Gaudium et spes*, 22). Todo en Cristo nos recuerda que el mundo en el que vivimos y su necesidad de redención no le es ajena y nos convoca también a sentirnos parte activa de esta misión: «Salgan al cruce de los caminos e inviten a todos los que encuentren» (Mt 22, 9). Nadie es ajeno, nadie puede sentirse extraño o lejano a este amor de compasión.



FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA
2021eko MISIOEN MUNDU JARDUNALDIRAKO
«Ezin dugu, inola ere, entzun eta ikusi duguna isilik gorde»
(Hch 4, 20)

Anai-arreba maiteok:

Jainkoaren maitasunaren indarra gozaten dugunean, bere Aita-presentzia gure bizitza pertsonalean eta elkartekoan aitortzen dugunean, ezin dugu entzun eta ikusi duguna hots egin eta partekatu gabe geratu. Jesusek ikasleekin zuen harremanak, gizon egitearen misterioan, bere Ebanjelioan eta Pazkoan agertzen zaigun bere gizatasunak Jainkoak gure gizatasuna zenbateraino maite duen eta gure pozak eta nekeak, gure nahiak eta minak nola bere egiten dituen ikusarazten digu (ik. Vatikanoko II. Kontz. *Gaudium et spes* Konst. past., 22). Kristogan denak gogoratzen digu, bizi garen mundua eta beharrezko duen askapena ez zaiola Berari arrotza egiten eta misio horretan era eraginkorrean parte hartzera deituak gara gu ere: «Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak» (Mt 22, 9).

La experiencia de los apóstoles

La historia de la evangelización comienza con una búsqueda apasionada del Señor que llama y quiere entablar con cada persona, allí donde se encuentra, un diálogo de amistad (cf. *Jn* 15, 12-17). Los apóstoles son los primeros en dar cuenta de eso, hasta recuerdan el día y la hora en que fueron encontrados: «Era alrededor de las cuatro de la tarde» (*Jn* 1, 39). La amistad con el Señor, verlo curar a los enfermos, comer con los pecadores, alimentar a los hambrientos, acercarse a los excluidos, tocar a los impuros, identificarse con los necesitados, invitar a las bienaventuranzas, enseñar de una manera nueva y llena de autoridad, deja una huella imborrable, capaz de suscitar el asombro, y una alegría expansiva y gratuita que no se puede contener. Como decía el profeta Jeremías, esta experiencia es el fuego ardiente de su presencia activa en nuestro corazón que nos impulsa a la misión, aunque a veces comporte sacrificios e incomprendimientos (cf. 20, 7-9). El amor siempre está en movimiento y nos pone en movimiento para compartir el anuncio más hermoso y esperanzador: «Hemos encontrado al Mesías» (*Jn* 1, 41).

Con Jesús hemos visto, oído y palpado que las cosas pueden ser diferentes. Él inauguró, ya para hoy, los tiempos por venir recordándonos una característica esencial de nuestro ser humanos, tantas veces olvidada: «Hemos sido hechos para la plenitud que sólo se alcanza en el amor» (Carta enc. *Fratelli tutti*, 68). Tiempos nuevos que suscitan una fe capaz de impulsar iniciativas y forjar comunidades a partir de hombres y mujeres que aprenden a hacerse cargo de la fragilidad propia y la de los demás, promoviendo la fraternidad y la amistad social (cf. *ibíd.*, 67). La comunidad eclesial muestra su belleza cada vez que recuerda con gratitud que el Señor nos amó primero (cf. *1 Jn* 4, 19). Esa «predilección amorosa del Señor nos sorprende, y el asombro –por su propia naturaleza– no podemos poseerlo por nosotros mismos ni imponerlo. [...] Sólo así puede florecer el milagro de la gratuidad, el don gratuito de sí. Tampoco el fervor misionero puede obte-

Apostoluen bizipena

Ebanjelizatzearen historia Jaunak egindako bilaketa sutsu batekin hasten da: dei egiten du eta pertsona guztiakin, dauden tokian daudela, adiskide-elkarrizketa izan nahi du (ik. *Jn* 15, 12-17). Apostoluak izan ziren lehenengoak horretaz jabetzen, aurkituak izan zireneko eguna eta ordua ere gogoan dute: «Arratsaldeko laurak alde zen» (*Jn* 1, 39). Jaunaren adiskidetasuna, gaixoak sendatzen, bekatariekin bazkaltzen, gosetuei jaten ematen, baztertuengana gerturatzen, kutsatuak ukitzen, behar-suekin bat egiten, zoriontasunetara gonbidatzen, era berri eta aginpidez betearekin irakasten ikusteak, kendu ezin den aztarna utzi zuen, txundimena eta gorde ezin den poz hedakor eta debal-dekoa sortzerainokoa. Jeremias profetak zioen bezala, misiora eragiten gaituen bere presentziaren sugarra da esperientzia hori, baita misio horrek, batzuetan, sakrifizioa eta ulermen eza ekarrita ere (ik. 20, 7-9). Maitasuna beti mugitzen da eta mugiarazten gaitu iragarpen ederren eta itxaropentsuena partekatzeke: «Mesias aurkitu dugu» (*Jn* 1, 41).

Jesusekin ikusi dugu, susmatu eta ukitu, gauzak desberdinak izan daitezkeela. Berak hasi zuen, dagoeneko, etorriko den garai berria, hainbestetan ahaztua den gure giza izatearen funtsezko ezaugarri berezi bat gogoratuz: «bizitza beterako sortuak izan gara, eta maitasunaren bidez baino ez daiteke lortu hori» (*Fratelli tutti* Gutun-entz., 68). Garai berri hauek ekimenak bultzatzeko fedea sustatzen dute eta denon hauskortasuna bereganatzen eta gizarteko senidetasuna eta adiskidetasuna sustatzen ikasiko duten gizon-emakumeekin elkarteak sendotzen dituzte (ik. *ibid.*, 67). Eliz elkarteak bere edertasuna agertzen du Jaunak lehenik maitatu gintuela esker onez gogoratzen duenean (ik. *1 Jn* 4, 19). «Maitasunez Jaunaren begiko izate horrek harritu egiten gaitu, eta txundimen hori berez ezin dugu geureganatu ezta inposatu ere. [...] Horrela bakarrik lora daiteke doakotasunaren miraria, norbere burua doan ematea. Misio garra ere ezin da jaso arra-

nerse como consecuencia de un razonamiento o de un cálculo. Ponerse en “estado de misión” es un efecto del agradecimiento» (*Mensaje a las Obras Misionales Pontificias*, 21 mayo 2020).

Sin embargo, los tiempos no eran fáciles; los primeros cristianos comenzaron su vida de fe en un ambiente hostil y complicado. Historias de postergaciones y encierros se cruzaban con resistencias internas y externas que parecían contradecir y hasta negar lo que habían visto y oído; pero eso, lejos de ser una dificultad u obstáculo que los llevara a replegarse o ensimismarse, los impulsó a transformar todos los inconvenientes, contradicciones y dificultades en una oportunidad para la misión. Los límites e impedimentos se volvieron también un lugar privilegiado para ungir todo y a todos con el Espíritu del Señor. Nada ni nadie podía quedar ajeno a ese anuncio liberador.

Tenemos el testimonio vivo de todo esto en los Hechos de los Apóstoles, libro de cabecera de los discípulos misioneros. Es el libro que recoge cómo el perfume del Evangelio fue calando a su paso y suscitando la alegría que sólo el Espíritu nos puede regalar. El libro de los Hechos de los Apóstoles nos enseña a vivir las pruebas abrazándonos a Cristo, para madurar la «convicción de que Dios puede actuar en cualquier circunstancia, también en medio de aparentes fracasos» y la certeza de que «quien se ofrece y entrega a Dios por amor seguramente será fecundo» (Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 279).

Así también nosotros: tampoco es fácil el momento actual de nuestra historia. La situación de la pandemia evidenció y amplificó el dolor, la soledad, la pobreza y las injusticias que ya tantos padecían y puso al descubierto nuestras falsas seguridades y las fragmentaciones y polarizaciones que silenciosamente nos laceran. Los más frágiles y vulnerables experimentaron aún más su vulnerabilidad y fragilidad. Hemos experimentado el desánimo, el desencanto, el cansancio, y hasta la amargura conformista y desesperanzadora pudo apoderarse de nuestras miradas. Pero nosotros «no nos anunciamos a nosotros mismos, sino a Jesús

zoitze edota kalkulu baten emaitza bezala. “Misio egoeran” jar-tzea, esker onaren ondorioa da» (*Aita Santuaren Misio-egintzei Mezua*, 2020ko maiatzak 21).

Ordea, garaiak ez ziren errazak; lehenengo kristauek kontra-ko giro zail batean hasi zuten beren fede-bizitza. Baztertze eta atxilotze historiak barne- eta kanpo-borrokekin nahasten ziren, ikusi eta entzun zutena gezurtatu edota ezeztatzen zutela ema-teraino; baina bere baitan itxi edo biltzera eraman zitzakeen zailtasun edo oztopo izan beharrean, zailtasun, kontraesan eta eragozpen guztiak misiorako aukera bihurtzera eraman zituen egoera horrek. Mugak eta eragozpenak abantaila bilakatu ziren dena eta denak Jaunaren Espirituaz gantzutzeko. Inork eta ezerk ezin zuen iragarpen askatzaile honetatik kanpo geratu.

Honen guztiaren testigantza bizia apostolu misiolariantzat ezinbestekoa den Apostoluen Eginak liburuan dugu. Liburu ho-rrek jasotzen du Ebanjelioaren lurrina igaro ahala nola barneratu zen eta Espirituak bakarrik oparitu diezagukeen alaitasuna nola sustatu zuen. Apostoluen Eginak liburuak irakasten digu zailta-sunak Kristorekin bat eginda bizitzen, jakinik «Jainkoak edozein egoeratan ekiten duela [...] baita itxurazko porroten erdian ere» eta uste osoz gogoratuz «Jainkoari bere burua eskaini eta ematen diona seguru emankorra izango dela» (*Evangelii gaudium* Aholku-hitz ap., 279).

Horrela guk ere: ez da erraza gure historiaren egungo egoera ere. Pandemia egoerak azaleratu eta ikusarazi zituen dagoeneko askok nozitzen zuen mina, bakardadea, pobrezia eta injustizia eta agerian jarri zituen gure hainbat ziurtasun faltsu eta isilik kaltetzen gaituzten zatiketa eta polarizazioak. Kaltebera eta ahul-enak zirenek are gehiago bizi izan zituzten beren kaltebera izatea eta ahultasuna. Adorerik eza, desilusioa, nekea eta samin-tasun konformista eta itxaropena kentzen duena gure begiradaz jabetu zela bizi izan dugu. Baina gu «ez gara geure buruak predi-katzen ari, Jesu Kristo Jauna dela baizik, eta gu ez gara zuen

como Cristo y Señor, pues no somos más que servidores de ustedes por causa de Jesús» (2Co 4, 5). Por eso sentimos resonar en nuestras comunidades y hogares la Palabra de vida que se hace eco en nuestros corazones y nos dice: «No está aquí: ¡ha resucitado!» (Lc 24, 6); Palabra de esperanza que rompe todo determinismo y, para aquellos que se dejan tocar, regala la libertad y la audacia necesarias para ponerse de pie y buscar creativamente todas las maneras posibles de vivir la compasión, ese «sacramental» de la cercanía de Dios con nosotros que no abandona a nadie al borde del camino. En este tiempo de pandemia, ante la tentación de enmascarar y justificar la indiferencia y la apatía en nombre del sano distanciamiento social, urge la misión de la compasión capaz de hacer de la necesaria distancia un lugar de encuentro, de cuidado y de promoción. «Lo que hemos visto y oído» (Hch 4, 20), la misericordia con la que hemos sido tratados, se transforma en el punto de referencia y de credibilidad que nos permite recuperar la pasión compartida por crear «una comunidad de pertenencia y solidaridad, a la cual destinar tiempo, esfuerzo y bienes» (Carta enc. *Fratelli tutti*, 36). Es su Palabra la que cotidianamente nos redime y nos salva de las excusas que llevan a encerrarnos en el más vil de los escepticismos: «todo da igual, nada va a cambiar». Y frente a la pregunta: «¿para qué me voy a privar de mis seguridades, comodidades y placeres si no voy a ver ningún resultado importante?», la respuesta permanece siempre la misma: «Jesucristo ha triunfado sobre el pecado y la muerte y está lleno de poder. Jesucristo verdaderamente vive» (Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 275) y nos quiere también vivos, fraternos y capaces de hospedar y compartir esta esperanza. En el contexto actual urgen misioneros de esperanza que, ungidos por el Señor, sean capaces de recordar proféticamente que nadie se salva por sí solo.

Al igual que los apóstoles y los primeros cristianos, también nosotros decimos con todas nuestras fuerzas: «No podemos dejar de hablar de lo que hemos visto y oído» (Hch 4, 20). Todo lo que hemos recibido, todo lo que el Señor nos ha ido concediendo, nos lo ha regalado para que lo pongamos en juego y se lo regalemos

zerbitzari besterik Jesusen maitasunagatik» (2 Ko 4, 5). Horregatik sumatzen dugu gure elkarte eta etxeetan biziaren Hitzaren gure bihotzean oihartzun egin eta esaten diguna: «Ez dago hemen, piztu da» (Lk 24, 6); determinismo oro hausten duen itxaropenezko Hitza da eta uki ditzan uzten dutenei beharrezko askatasuna eta ausardia oparitzen die zutik jarri eta sormen-jarreraz onginahia bizitzeko era guztiak bilatzeko; bide ertzean inor baztertzen ez duen Jainkoaren gertutasunaren “sakramentala” da hori. Pandemia garai honetan, beharrezko distantzia sozialaren aitzakian axolagabekeria estaltzeko eta justifikatzeko tentaldiaren aurrean, beharrezkoa da onginahiaren misioa, ezinbesteko distantzia topagune, zaintza-gune eta promozio-gune bihurtuko dituen. «Entzun eta ikusi duguna» (Eg 4, 20), gurekin erabili duten errukia bihurtzen da erreferentzia eta sinesgarritasun gune «komunitate batean senide izatearen grina berreskuratu, eta komunitate horren alde denbora, ahalegina eta ondasunak» emateko (*Fratelli tutti* Gutun-entz., 36). Bere Hitza da eszeptizismo zitalenean ixtetik egunero askatzen eta salbatzen gaituena: “denak berdin dio, ez da ezer aldatuko”. Galde dezakegu: “zertarako egingo diet uko nire ziurtasun, erosotasun eta plazerrei, ondorio garrantzitsurik izango ez bada?”, baina erantzuna beti da bera: «Jesu Kristok bekatua eta heriotza garaitu dituela eta ahalmenez betea dagoela. Jesu Kristo bizi da egiaz» (*Evangelii gaudium* Aholku-hitz ap., 275) eta gu ere bizirik nahi gaitu eta elkarren senide eta itxaropena geureganatzeko eta partekatzeko gai. Egungo egoeran ezinbestekoak dira inork bere burua ez duela salbatzen era profetikoan oroitaraziko diguten itxaropenaren misiolariak, Jaunak gantzutuak.

Apostoluek eta lehen-kristauek bezala, guk ere geure indar guztiz esaten dugu: «Ezin dugu, inola ere, entzun eta ikusi duguna isilik gorde» (Eg 4, 20). Jaso dugun guztia, Jauna emanaz joan zaiguna, erabiltzeko eta besteei doan emateko oparitu digu. Jesusen salbamena ikusi, entzun eta ukitu duten apostoluek bezala (ik. 1 Jn 1, 1-4), guk ere uki dezakegu gaur Kristoren haragi sufritu

gratuitamente a los demás. Como los apóstoles que han visto, oído y tocado la salvación de Jesús (cf. *1 Jn* 1, 1-4), así nosotros hoy podemos palpar la carne sufriente y gloriosa de Cristo en la historia de cada día y animarnos a compartir con todos un destino de esperanza, esa nota indiscutible que nace de sabernos acompañados por el Señor. Los cristianos no podemos reservar al Señor para nosotros mismos: la misión evangelizadora de la Iglesia expresa su implicación total y pública en la transformación del mundo y en la custodia de la creación.

Una invitación a cada uno de nosotros

El lema de la Jornada Mundial de las Misiones de este año, «No podemos dejar de hablar de lo que hemos visto y oído» (*Hch* 4, 20), es una invitación a cada uno de nosotros a «hacernos cargo» y dar a conocer aquello que tenemos en el corazón. Esta misión es y ha sido siempre la identidad de la Iglesia: «Ella existe para evangelizar» (S. Pablo VI, Exhort. ap. *Evangelii nuntiandi*, 14). Nuestra vida de fe se debilita, pierde profecía y capacidad de asombro y gratitud en el aislamiento personal o encerrándose en pequeños grupos; por su propia dinámica exige una creciente apertura capaz de llegar y abrazar a todos. Los primeros cristianos, lejos de ser seducidos para recluirse en una élite, fueron atraídos por el Señor y por la vida nueva que ofrecía para ir entre las gentes y testimoniar lo que habían visto y oído: el Reino de Dios está cerca. Lo hicieron con la generosidad, la gratitud y la nobleza propias de aquellos que siembran sabiendo que otros comerán el fruto de su entrega y sacrificio. Por eso me gusta pensar que «aun los más débiles, limitados y heridos pueden ser misioneros a su manera, porque siempre hay que permitir que el bien se comunique, aunque conviva con muchas fragilidades» (Exhort. ap. postsin. *Christus vivit*, 239).

En la Jornada Mundial de las Misiones, que se celebra cada año el penúltimo domingo de octubre, recordamos agradecida-

eta aintzatsua eguneroko historian eta gogoberotu gaitezke guz-
tiekin itzaropenezko etorkizuna partekatzeko, Jaunak laguntzen
gaituela jakitearen ondorio ukaezina da hori. Kristauok ezin
dugu Jauna guretzat gorde: Elizaren ebanjelizatze eginkizunak
bere inplikatzeko osoa eta publikoa adierazten du munduaren eral-
daketan eta kreazioaren zaintzan.

Gutako bakoitzari egindako gonbidapena

Misioen Mundu Jardunaldiaren aurtengo goiburua, «Ezin
dugu, inola ere, entzun eta ikusi duguna isilik gorde» (*Hch* 4, 20),
gonbidapena da, gutako bakoitza “jabetu gaitezen” eta bihotzear
duguna ezagutarazi dezagun. Misio hori da eta izan da beti Eli-
zaren nortasuna: «Eliza ebanjelizatzeke da» (San Paulo VI. *Evan-
gelii nuntiandi* Aholku-hitz ap., 14). Geure baitan isolatzen edota
talde txikitan ixten garenean gure fede-bizitza ahuldu egiten da,
profezia-garra eta harridurarako eta esker onerako gaitasuna
galtzen du; berezko izaeraz hazten doan zabalkundea eskatzen
zaio guztiengana iritsi eta guztiak besarkatzeko. Lehen-kris-
tauak, elite batean ixteko liluratuak ez baizik eta jendearengana
joan eta ikusi eta entzundakoaren testigantza emateko Jauna eta
Berak eskaintzen zuen bizi berriak erakarriak izan ziren: Jain-
koaren Erreinua gertu dagoela esateko. Eskuzabaltasunez, esker
onez eta prestutasunez egin zuten; beraien eskaintza eta sakri-
fizioaren fruitua beste batzuek jango dutela jakinik ereiten du-
tenen jarrerak dira horiek. Horregatik atsegin dut pentsatzea
«ahulenak, mugatuenak eta zaurituenak misiolari izan daitezke-
ela beren erara, ongia jakitera eman ahal izatea bideratu behar
baita beti, ongi horrek ahultasun asko baditu ere (*Christus Vivit*
Aholku-hitz ap., 239).

Urriaren azken-aurreko igandean urtero ospatzen den Mi-
sioen Mundu Jardunaldian, esker onez oroitzen ditugu bere bizi-
testigantzarekin gure bataioko konpromisoa berritzen la-

mente a todas esas personas que, con su testimonio de vida, nos ayudan a renovar nuestro compromiso bautismal de ser apóstoles generosos y alegres del Evangelio. Recordamos especialmente a quienes fueron capaces de ponerse en camino, dejar su tierra y sus hogares para que el Evangelio pueda alcanzar sin demoras y sin miedos esos rincones de pueblos y ciudades donde tantas vidas se encuentran sedientas de bendición.

Contemplar su testimonio misionero nos anima a ser valientes y a pedir con insistencia «al dueño que envíe trabajadores para su cosecha» (Lc 10, 2), porque somos conscientes de que la vocación a la misión no es algo del pasado o un recuerdo romántico de otros tiempos. Hoy, Jesús necesita corazones que sean capaces de vivir su vocación como una verdadera historia de amor, que les haga salir a las periferias del mundo y convertirse en mensajeros e instrumentos de compasión. Y es un llamado que Él nos hace a todos, aunque no de la misma manera. Recordemos que hay periferias que están cerca de nosotros, en el centro de una ciudad, o en la propia familia. También hay un aspecto de la apertura universal del amor que no es geográfico sino existencial. Siempre, pero especialmente en estos tiempos de pandemia es importante ampliar la capacidad cotidiana de ensanchar nuestros círculos, de llegar a aquellos que espontáneamente no los sentiríamos parte de «mi mundo de intereses», aunque estén cerca nuestro (cf. Carta enc. Fratelli tutti, 97). Vivir la misión es aventurarse a desarrollar los mismos sentimientos de Cristo Jesús y creer con Él que quien está a mi lado es también mi hermano y mi hermana. Que su amor de compasión despierte también nuestro corazón y nos vuelva a todos discípulos misioneros.

Que María, la primera discípula misionera, haga crecer en todos los bautizados el deseo de ser sal y luz en nuestras tierras (cf. Mt 5, 13-14).

*Roma, San Juan de Letrán, 6 de enero de 2021,
Solemnidad de la Epifanía del Señor.*

Francisco

guntzen diguten hainbat pertsona: Ebanjelioaren apostolu eskuzabal eta alai izatea da konpromiso hori. Gogoan ditugu bereziki, bidean jartzeko gai izan zirenak, beren lurra eta etxea utzi zutenak, bedeinkapen beharrean dauden pertsonak bizi diren herri eta hirietara Ebanjelioa luze gabe eta beldurrik gabe irits dadin.

Haien misio-testigantza begiratzeak ausartak izatera deitzen gaitu behin eta berriz eskatuz «uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara» (Lk 10, 2), badakigu eta misiorako bokazioa ez dela iraganeko zerbait edota beste garai bateko oroipen erromantikoa. Jesusek beharrezkoak ditu gaur, beraien bokazioa egiazko maitasun-historia bezala biziko duten bihotzak, maitasun horrek munduko periferietara ateraraziko dituenak onginahiaren mezulari eta bitarteko izanez. Denoi egiten digu Berak dei hori, denoi era berean ez bada ere. Oroi dezagun badirela gure ondoan dauden periferiak ere, hiri beraren bihotzean edota norbere familian. Maitasunaren irekitze unibertsalak badu alderdi bat geografikoa ez dena, existentziala baizik. Beti, baina pandemia garai hauetan. bereziki, garrantzitsua da gure esparruak zabaltzeko ohiko gaitasuna handitzea, gure ondoan egonik ere, berez, “nire interesen mundua” osatzen ez dutenengana ere iristeko (ik. *Fratelli tutti* Gutun-entz., 97). Misioa bizitzea, Kristo Jesusek izan zituen sentipenak garatzera arriskatzea da eta Berarekin batera sinestea ondoan dudana ere nire anaia eta arreba dela. Bere onginahizko maitasunak esnaraz dezala gure bihotza eta egin gaitzala denok ikasle misiolari.

Mariak, lehenengo ikasle misiolariak, hazaraz dezala bataiatu guztiongan gure lurrian gatz eta argi izateko gogoia (ik. Mt 5, 13-14).

*Erroman, Letrango San Joan baitan,
2021eko urtarrilaren 6an, Jaunaren
Agerkundearen Festaburua.*
Frantzisko

“Yo solo sé que era ciego y ahora veo”

El lema elegido para el DOMUND 2021, “**No podemos dejar de anunciar y compartir lo que hemos visto y oído**”, me trae a la memoria el pasaje de la curación del ciego de nacimiento narrada en el capítulo noveno de San Juan. Los fariseos no están dispuestos a dar crédito a la acción milagrosa que Jesús había realizado, e interrogan a los padres y al hijo que había sido ciego, con la pretensión de desacreditar el signo realizado por Jesús.

En medio de esta presión que los fariseos ejercen en su interrogatorio, los padres acaban “poniéndose de perfil”: *«Sabemos que este es nuestro hijo y que nació ciego; pero cómo ve ahora, no lo sabemos; y quién le ha abierto los ojos, nosotros tampoco lo sabemos. Preguntádselo a él, que es mayor y puede explicarse»* (Jn 9, 20-21). Por el contrario, quien ha experimentado la curación, no puede por menos de dar cuenta de la gracia recibida: *“«Yo solo sé que era ciego y ahora veo»*. Y no solo eso, sino que responde a las insidias de los fariseos: *«Pues eso es lo raro: que vosotros no sabéis de dónde viene, y, sin embargo, me ha abierto los ojos. Sabemos que Dios no escucha a los pecadores, sino al que es piadoso y hace su voluntad. Jamás se oyó decir que nadie le abriera los ojos a un ciego de nacimiento; si este no viniera de Dios, no tendría ningún poder»*. *Le replicaron: «Has nacido completamente empecatado, ¿y nos vas a dar lecciones a nosotros?»*. Y lo expulsaron.” (Jn 9, 30-34)

Ser expulsado de la sinagoga en aquel tiempo era algo muy grave, hasta el punto de ser convertido en un proscrito social... Acaso los padres de aquel joven le habrían advertido más de una vez, que era mejor ser prudente, y no correr riesgos innecesarios con las palabras. Sin embargo, él no podía callar: *“Yo solo sé que era ciego y ahora veo”*.

Alguien dijo que los argumentos se pueden discutir, pero que los testimonios no se pueden sino escuchar con respeto, para

**“Dakidan gauza bakarra hauxe da:
itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala”**

Aurtengo DOMUND 2021 jardunaldirako aukeratutako goiburuak dio, **“Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde”**; esaldi honek, San Joanen Ebanjelioko kontakizun bat dakarkit gogora, bederatzigarren atalean datorren itsu jaio zenaren sendaketaren kontakizuna. Fariseuek ezin zuten onartu Jesusek egindako miraria, eta gurasoei eta itsu izandako semeari galdera egin zieten, Jesusen ekintza hori gezurtatzeko asmoz.

Fariseuek beren galderekin egindako presioa zela eta, gurasoak **“albora begira”** jarri ziren: *“Guk badakigu gure semea dela eta itsu jaio zela; baina orain nola ikusten duen edo begiak nork ireki dizkion, hori ez dakigu. Galdetu berari, badu-eta adina bere buruaren berri emateko”* (Joan 9, 20-21). Sendatua izan zen itsuak, ordea, ezin isilean gorde hartu zuen grazia: **“Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala”**. Eta hori asko ez zela, fariseuen maltzurkeriei erantzun zien: *“Hori bai harrigarria! Zuek nongoa den ere jakin ez, eta hark niri begiak ireki. Jakina da Jainkoak ez diela bekatariei entzuten, baizik eta jainkozale denari eta beraren nahia egiten duenari entzuten diola. Egundaino ez da entzun itsu jaiotako bati inork begiak ireki dizkionik. Gizon horrek, Jainkoagandik ez baletor, ezin izango luke ezer egin”*. Haiak erantzun zioten: *“Goitik beheraino bekataria jaio zinen, eta zu guri irakatsi nahian?”* Eta kanpora bota zuten (Joan 9, 30-34).

Sinagogatik kanpora botatzea gauza larria zen garai hartan; maila sozialean debekatua izatea esan nahi zuen... Gazte haren gurasoek esan izango zioten, agian, behin baino gehiagotan, hobe zela zuhurra izatea eta, inolako beharrik gabe, arriskuan ez jartzeari hitz egitekoan. Baina, hark ezin zuen isilean gorde: **“Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala”**.

Norbaitek esana da, arrazoiak eztabaida daitezkeela, baina testigantzak errespetuz entzun beharrekoak direla, eta ondoren

posteriormente tomar una postura ante ellos. Al igual que es responsabilidad de cada uno de nosotros el abrirnos o el cerrarnos al testimonio que se nos da, también es nuestra responsabilidad proclamar ante el mundo las obras que Dios ha hecho en nosotros, al modo que lo hizo María: *“porque el Señor ha hecho obras grandes en mí, su nombre es santo”*.

Ser misionero no es solo hacer obras buenas, sino también “anunciar y compartir lo que hemos visto y oído”. Bien es cierto que no debemos plantear falsas contraposiciones entre “hacer” y “anunciar”, ya que el mismo Jesús hizo presente el Reino de Dios con palabras y obras. Pero también es cierto que en el referente imaginario mayoritario, la palabra misionero tiene muy poco que ver con el anuncio de la Buena Nueva del Evangelio. En este clima materialista en el que vivimos, se ha llegado a secularizar la solidaridad y hasta la misma caridad. ¿Es posible tal cosa? ¿Pueden secularizarse la solidaridad y la caridad, cuando es un hecho que brotan de la encarnación del Verbo solidarizado con la condición humana y de la redención de Cristo “nadie tiene amor más grande que el que da su vida por sus amigos”?

A los hechos nos remitimos: Le escuché en una ocasión al cardenal Mons. Fernando Sebastián, quien fue arzobispo de Pamplona, que es una paradoja que los mismos países que llevaron el Evangelio de Jesucristo a América y a África, hayan sido los mismos que han difundido el germen de la secularización y de la descristianización. Por lo tanto, el riesgo de que la misma solidaridad y la caridad sean de facto secularizadas, es una realidad. Y la causa principal es que se han desligado del anuncio explícito de la persona de Jesucristo, nuestro Salvador y Redentor. A base de tocar una melodía sin letra, con el paso del tiempo, hemos dejado de entender su significado. ¡Música y letra están llamadas a iluminarse mutuamente!

Como le ocurrió a aquel ciego de nacimiento al que Jesús devolvió la vista, también en nuestros días la confesión del testimonio de fe en Jesucristo puede resultar dificultosa. De hecho,

jarrera hartu behar dela haien aurrean. Norberaren arazoa da pertsona baten testigantza onartzea nahiz arbuiatzea; hala berean, gure arazoa da Jainkoak gudan egindako egintza onak munduaren aurrean adieraztea, Mariak egin zuen moduan: “*Handiak egin baitzikit Ahalguztidunak; santua da haren izena*”.

Misiolari izatea ez da egintza onak egitea bakarrik, “entzun eta ikusi duguna adieraztea” ere bada. Egia da ez ditugula elkarren kontra jarri behar “egitea” eta “adieraztea”; Jesusek berak hitzez eta egitez aldarrikatu baitzuen Jainkoaren Erreinua. Baina, egia da, baita ere, jende askoren ikuspegitik, misiolari hitzak zerikusi gutxi duela Ebanjelioko Berri Onaren aldarrikapenarekin. Guk orain bizi dugun giro materialista honetan, sekularizatu egin da solidaritatea, baita karitatea bera ere. Egin al daiteke hori? Sekularizatu al daitezke solidaritatea eta karitatea, kontuan izanik Hitzaren gizakundetik datozen gauzak direla bat egin baitzuen hark gizakion izaera eta egoerarekin eta Kristoren salbamen-egintzatik datorrena “ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino”?

Begira, bestela, gertaerei: Iruñeko artzapezpiku izandako Fernando Sebastián jaun kardinalari entzun nion behin batean, gauza harrigarria zela ikustea, Amerikara eta Afrikara Jesu Kristoren Ebanjelioa eraman zuten herrialde berak izan zirela gero sekularizazioaren eta kristautasunetik aldentzearen hazia ere eraman zutenak. Ikusten denez, solidaritatea eta karitatea ere sekularizatzeko arriskua egiazkoa da. Eta horren arrazoirik nagusia zera da: alde batera utzi izan direla horiek gure Salbatzailea eta Eroslea den Jesu Kristoren persona bera aldarrikatetik. Doinu bat behin eta berriz letra abestu gabe jotzen denean, denboraren joanean, galdu egin dugu doinu horren esanahia. Doinuak eta letrak biak batera joan behar dute elkar argitzeko!

Jesusek ikusmena eman zion itsu hari gertatu zitzaion bezala, gure egunotan ere, zail egingo zaigu, agian, Jesu Kristoganako fede-aitormena egitea. Hain zuzen, behin baino gehiagotan ikusi

no es infrecuente comprobar cómo quienes han asumido los criterios mundanos, se quedan desconcertados cada vez que la Iglesia, en vez de limitarse a repetir aquellos valores asumidos desde lo políticamente correcto, va más allá, afirmando la peculiaridad de lo específicamente cristiano. Si a aquel ciego de nacimiento se le expulsó de la Sinagoga por haber confesado a Cristo, también todo misionero, todo cristiano, debe estar preparado para padecer incompreensión...

Impresiona escuchar la sentencia final pronunciada por Jesús en el episodio del evangelio de San Juan al que nos estamos refiriendo: “Oyó Jesús que lo habían expulsado, lo encontró y le dijo: «¿Crees tú en el Hijo del hombre?». Él contestó: «¿Y quién es, Señor, para que crea en él?». Jesús le dijo: «Lo estás viendo: el que te está hablando, ese es». Él dijo: «Creo, Señor». Y se postró ante él. Dijo Jesús: «Para un juicio he venido yo a este mundo: para que los que no ven, vean, y los que ven, se queden ciegos.»” (Juan 9, 35-39). En efecto, en la medida en que anunciamos lo que hemos visto y oído, Dios iluminará nuestras tinieblas; mientras que, si lo silenciamos o nos avergonzamos de ello, padeceremos la ceguera y sordera del alma.

Dicho lo cual, no podemos olvidarnos de que el anuncio de la Buena Nueva no solamente conlleva la cruz, sino que también es fuente de alegría y de paz. ¡Qué gozo tan grande poder proclamar al mundo la esperanza del Evangelio! ¡Es un honor poder ser testigos y confesores de lo que Dios ha hecho en nosotros! ¡Fuera complejos y fuera miedos! Recuerdo una de esas genialidades del Papa Francisco, en la que dirigiéndose a un grupo de jóvenes exclamaba: «¿¡Gritas un gol y, sin embargo, no alabas con fuerza a Dios!?»

¡¡Gloria a Dios por sus obras, porque infinita es su misericordia!!

José Ignacio Munilla Aguirre
Obispo de San Sebastián

ahal izan dugu, mundu honetako irizpideak berenganatu dituztenak txundituta gelditu ohi direla, Elizak, gauza egokitzen jo ohi ditugun arrazoi eta balioetan gelditu gabe, haratago joan eta benetan kristauak diren berezitasunak aipatzen dituenen. Itsu jaiotako hura sinagogatik kanpora bota bazuten Kristoren aldeko aitormena egiteagatik, misiolariak ere, eta edozein kristauk ere, prest egon beharko du gaizki ulertua izateko...

Deigarria gertatzen da, aipatzen ari garen San Joanen Ebanjelioko pasarte honi gagozkiolarik, Jesusek nolako esaldiaz bukatzen duen entzutea: *“Jakín zuen Jesusek bota egin zutela eta, aurkitu zuenean, galdetu zion: “Sinesten al duzu Gizonaren Semeagan?” Hark erantzun: “Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan”. Jesusek esan zion: “Ikusi duzu; zurekin hizketan ari dena bera da”. Hark ordutan: “Sinesten dut, Jauna”. Eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Ondoren, Jesusek esan zuen: “Epaí baterako etorri naiz Ni mundu honetara; ikusten ez dutenek ikus dezaten, eta ikusten dutenak itsu bihur daitezten”* (Joan 9, 35-39). Hain zuzen, guk ikusi eta entzun duguna aldarrikatzen dugun heinean, argituko ditu Jainkoak gure iluntasunak; eta, alderantziz, isildu egiten badugu edota horretaz lotsatu egiten bagara, geure arimaren itsutasuna eta gorreria nabarituko dugu.

Horiek esanik, ez dugu ahaztu behar, Berri Ona aldarrikatzeak gurutzea dakarrela berekin; baina ez hori bakarrik, poz eta bake-iturri ere bihurtzen da. Handia da, benetan, Ebanjelioaren itxaropena munduari aldarrikatzea! Ohore handia da, Jainkoak guran egindako egintza salbagarrien testigu eta aitortle izatea! Utz ditzagun alde batera lotsak eta beldurrak! Gogoan dut Frantzisko Aita Santuak, bere ateraldi zoragarri horietako batean, nola esaten zion gazte-talde bati: *“Zuk oihuka esaten duzu gol, eta ez al zara ausartzen Jainkoa indartsu goratzera!?”*

Jaunari kanta, ona baita, hain du handia bere betiko errukia!!

Jose Ignazio Munilla Agirre
Donostiako gotzaina

30º DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO

Saludo

La gracia y la paz del Señor Jesús estén con todos vosotros.

Monición de entrada

Nos hemos reunido en la asamblea de los Bautizados. Quienes fuimos traídos a las aguas del Bautismo e iluminados por la fe confesamos al Señor Jesús como liberador y alegría para nuestra vida. Esta es la asamblea de quienes buscan la luz, de los que desean ver.

En este penúltimo domingo de octubre celebramos el DOMUND, domingo de misiones con este lema: «**Cuenta lo que has visto y oído**». Tenemos entre manos la mejor Noticia: Cristo, el Hijo de Dios que nos ama sin límites, ha dado su vida por nosotros. Hemos recibido la tarea, la misión de propagar esa noticia hasta los confines del mundo.

Acto penitencial

Comencemos humildemente, disponiéndonos a aceptar la misericordia gozosa de Dios.

- Tú que has venido a buscar al que estaba perdido:
Señor, ten piedad.
- Tú que has querido dar la vida en rescate por todos:
Cristo, ten piedad.
- Tú que reúnes a tus hijos dispersos: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

URTEAN ZEHAR 30. IGANDEA

Agurra

Jesus Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Bataioko uretara ekarriak eta fedez argituak izan ginenok Jesus Jauna aitortzen dugu gure bizitzaren askatzaile eta poz. Hau da argi bila dabiltzaneren batzarrera, hau, ikusi nahi dutenen mahaia.

Urriko azken-aurreko igande honetan DOMUND, misio igandea ospatzen dugu aurten ere, goiburu honekin: **«Ikusitakoa eta entzundakoa konta ezazu»**. Berririk onena dugu esku artean: Kristok, Jainkoaren Semeak, neurrigabe maite gaituenak, gugatik eman du bere bizia. Hori bazter guztietara eramateko misioa, eginkizuna, jaso dugu.

Damu otoitza

Has gaitezen, apal agerturik, Jainkoaren erruki gozoa onartzeko prestatuz.

- Jesus Jauna, galdua zegoena bilatzera etorria: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure bizia guztion erospenerako eman duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gizon-emakume guztiak biltzera etorria: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua eta gure bekatuak barkaturik eraman gaitzala betiko bizira.

Oración colecta

(Misa “Por la evangelización de los pueblos”. Misal Romano pág. 928-929)

**Oh Dios, que enviaste al mundo a tu Hijo
como luz verdadera, derrama tu Espíritu
para que siembre la semilla de la verdad
en el corazón de los hombres y suscite en ellos la fe,
de modo que todos,
renacidos a una nueva vida por medio del bautismo
lleguen a formar parte de tu único pueblo.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.**

Antes de las lecturas

Hay muchas formas de ser ciego... y, ¡cuántas las tenemos aprendidas! La palabra de Dios nos ilumina para andar por sendas de luz.

Sugerencias para la homilía

¡Cómo nos quema el corazón al ver el sufrimiento de nuestro mundo! No podemos dejar que nadie se sienta lejos del amor de Dios, y por eso, como miembros de esta gran familia que es la Iglesia, no podemos dejar de anunciarlo y compartirlo.

Recordamos con gratitud a los misioneros, que, con su testimonio de vida, nos ayudan a renovar nuestro compromiso bautismal de ser apóstoles generosos y alegres del Evangelio, que lleven palabras de esperanza: “¡El Señor ha salvado a su pueblo!” (*Primera Lectura*).

“El Señor ha estado grande con nosotros, y estamos alegres” (*Salmo*). Sin la experiencia personal del amor de Dios, sin la alegría de sentirnos hijos suyos, es imposible la misión. Si Dios no está

Otoitza

(“Herrien Ebanjelizatzerako” A - Meza. Meza liburua 1168-1170. orr.)

Oi Jainko,
zeure Semea bidali duzu mundura egiazko argitzat;
isuri agindutako Espiritu Santua,
gizon-emakumeen bihotzean egiaren hazia erein
eta fedearen aitormena eragin dezan;
eta egizu, denek, Bataioaren bidez bizi berrira jaiorik,
irits dezatela zure herri bakarrean sartzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Itsu izateko modu asko dira... eta asko ikasiak dauzkagu nonbait! Jainkoaren Hitzak argitzen gaitu, argi-bideak urratzen ikasteko.

Homiliarako argibideak

Bihotza sumintzen zaigu gure munduan zenbat sufrimendu dagoen ikustean! Ezin dugu utzi inor Jainkoaren maitasunetik urruti sentitzen eta, horregatik, Eliza den familia handiaren kide garenez ezin diogu utzi Jainkoa hots egin eta partekatzeari.

Esker onez gogoratzen ditugu misiolariak, beraien bizi-testigantzarekin bataioko gure konpromisoa gogoratzen digute: Ebanjelioaren apostolu eskuzabal eta alai izan behar dugu, itxaropen mezua helaraziz: “Jainkoa bere herria salbatzen ari da!” (*Lehenengo irakurgaia*).

“Gurekin handikiro jokatu da Jauna, hau da poza daukaguna” (*Salmoa*). Jainkoaren maitasunaren esperientzia pertsonalik gabe, bere seme-alaba sentitzearen pozik gabe, ezinezkoa da

presente en mi vida, ¿qué voy a llevar a los demás? Por eso, la oración, como dice el papa Francisco, es la primera obra misional.

Ambientes hostiles pueden hacernos dudar, pero eso no es excusa, sino una oportunidad para la misión. Nuestra identidad como Iglesia es evangelizar, dar testimonio de generosidad sin esperar frutos y siendo fieles a Cristo, “sacerdote para siempre” (*Segunda Lectura*), centro de nuestro ser misionero y plenitud de nuestra vida.

Dios necesita de cada uno de nosotros para gritar a nuestro mundo: “Ánimo, levántate, que te llama” (*Evangelio*). Porque es el Señor quien te llama; quien sale a tu encuentro, te cura, te consuela; quien tiene una palabra de alivio para ti.

Hoy Jesús te pregunta: “¿Qué quieres que te haga?”. Sabe que tu corazón necesita de su compasión. Grítale a Jesús, llámalo. Hoy, día del Domund, Jesús te puede cambiar la vida.

¿No se podría decir que estamos ciegos, porque nos conformamos con caminar por la vida entre penumbras, cuando tenemos cerca a Jesús, luz del mundo? Mucha gente que se creía con vista no siguió a Jesús; Bartimeo, sí. Y Bartimeo puedes ser tú.

Hagamos nuestra la oración del ciego de Jerico: “Rabbuni [Maestro], que vea”. Y ofrezcamos la vida por los misioneros. ¡Cuenta lo que has visto y oído!

Oración de los fieles

Dirijamos nuestra oración a Dios, que quiere el bien de todos los hombres y mujeres:

- Para que el Señor encienda en el corazón de los fieles el deseo de anunciar la Buena noticia y alcanzar la salvación y la alegría de todos. Roguemos al Señor.
- Para que, superando las dificultades que dividen a pueblos y razas toda la humanidad trate de vivir en igualdad y justicia. Roguemos al Señor.

misioa. Jainkoa nire bizitzan presente ez badago, nola eramango diet besteei? Horregatik, Frantzisko Aita Santuak dioskun moduan, otoitza da lehenengo misio-ekintza.

Giro ezkorretan bizitzeak zalantza piz dezake gugan, baina hori ez da aitzakia bat, misiorako aukera bat baizik. Elizaren izatea ebanjelizatzea da: fruiturik itxarogabe eta “betiereko apaiz” (*Bigarren irakurgaia*) den Kristorekin leial izanez, eskuza-baltasunaren testigu izan behar dugu. Kristo da gure misiolari izatearen muina eta gure bizitzen betetasuna.

Jainkoak gu guztiok behar gaitu munduari dehiadar egiteko: “Izan bihotz, altxa, deika ari zaizu” (*Ebanjelioa*). Izan ere, Jauna da deika ari zaizuna; bidera arteratzen zaizu, sendatu egiten zaitu, zure kontsolamendua da, beti du zuretzat hitz bizigarri bat.

Jesus galdezka ari zaizu: “Zer nahi duzu egitea?”. Badaki zure bihotzak Bere onginahia behar duela. Egiozu dei. Gaur, Domund ingande honetan, Jesusek zure bizitza alda dezake.

Gurea egin dezagun Jerikoko itsuaren otoitza: “Rabbuni [Maisu], ikus dezadala”. Eta eskain dezagun gure bizitza misiolarien alde. Ikusitakoa eta entzundakoa konta ezazu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiozun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiozun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiozun Jaunari.

- Por los misioneros y misioneras, para que su dicha sea imitar a Jesús, dándose a los demás en el servicio del Evangelio. Roguemos al Señor.
- Para que los emigrantes y los refugiados, los que la sociedad margina y todos los que se sienten abandonados se sientan protegidos por Dios y acogidos por todos. Roguemos al Señor.
- Para que Dios nos fortalezca en su amor, a fin de que seamos servidores más fieles y nos parezcamos cada día más a Cristo. Roguemos al Señor.

Oh Dios que por medio de tu servidor Moisés diste la libertad a tu pueblo; escucha la oración de tu Iglesia y haz que el nuevo Israel avance siempre superando todo mal, confiando en que siempre ayudas a quienes en ti confían. Por Jesucristo nuestro Señor.

En el momento de la colecta

Recordad [cuando se haga la colecta] que será destinada para el DOMUND.

Oración después de la comunión

**Fortalecidos, Señor,
por el banquete de nuestra redención,
te pedimos que, por este auxilio de salvación eterna,
crezca sin cesar en el mundo la fe verdadera.
Por Jesucristo, nuestro Señor.**

- Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak baztertzan dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezten Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Moises Zure zerbitzariaren bidez garaipena eman zenion zeure herriari, ikus otoitzean bildua dagoen Eliza eta egizu Israel berriak aurrera egin dezala beti gaitz guztiak gaudituz, Zure zain bizi direnen alde egingo duzun ordua iritsi artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Ohartarazi, diru-bilketa [egiten den unean] DOMUND jardunaldirako izango dela.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

DOMUND 2021
(2020ko diru-eskearen laburpena)

<u>Artziprestaldea</u>	<u>euro</u>
Beterri	14.070,77
Donostia	49.073,47
Ekialde	12.492,59
Goierni	9.005,11
Mendebalde	11.395,87
Urola-Kosta	16.118,46
Beste zenbait	<u>8.614,70</u>
GUZTIRA:	<u>120.770,97</u>